

Ekainaren 6a

TXILLARDEGI



Ez dut oso gogoko hauteskunderi buruz idaztea. Baina are gutxiago 'largian' bizi naizela inori sinesteko aitzekiari ematea.

Eta hori dela bide, bi hitz datozen hauteskunde horietaz.

Nik badakit (eta abertzale guztiek jakin behar lukete hau gututz garbiki) neure boza nori ez diodan emango.

Hasteko, partidu espainolstei: berrehun urte honetan Hegoaldean ikusi duguna ikusirik, eskual bota bakar bat ere ez lukete bildu behar PSOEk, PPK eta gainerakoek. Horien helburuan ez dago inolako Euskal Herririk, 'region cantabro-oriental' batentzako lekua egon badaiteke ere.

PNVari, partidu *española* eta *españolista* denez, ez lioke abertzale batek ere bere botoa eman beharko. Ikastolen sareko poizintza, puskatzea eta erregalaztea; eskual telebista, espainiar zulo bihurtzea bigarren kanalean; EGUNKARIA itotzen saiatzea; AEK, UEU, eta abar, hiltzen saiatzea; politika-mundua mafia-kutsuz kirarista; industriaren hondamendia bedekinatzea; polizia eskual libre uztea; eta abar luze bai, aski eta larregi dira PNVari botoa inolaz ere ez emateko.

EA-EUE izan daiteke agian baten edo besteren burutazioa. Hots, horiek ere, bere jatorri bikoitzaren *loyak* ezin hautsirik, eta jarrera *abertzalerik* ezin hautaturik (eta, beraz, de facto, PNV-aren *morrain leial* jokaturik), azkenik gabeko *salantza-sokara* eramango gintuzke. 'Les preuves sont là'.

Ez da HB baizik gelditzen. Eta hauxe idazti nuen 'Enbata'ko artikuluan: 'HB est le dernier espoir de notre peuple'. Azkeneko esperantza, bai. Itzulpenetan, gero... ahantzia! Saltsa sortu nahiz... Jakina.

Madriren ez dugu abertzaleok ezer 'pintatzen'. Noski! Aukeraturik ez, ez genuke inoiz hara joan behar, Arana-Goirik zuzen ikusi zuten bezala... Garbi dago. Jokoa sartzeri, ez.

Baina botorik ez ematea ere, ez zait bidezko iruditzen: *abstentzioa, agintearen alde doa.*

Botoa eman behar da datorren 6an, beraz. Eta boto hori HBri eman behar zaio.

Nik, behintzat, horixe egingo dut.

Fernando

JON SARASUA



KEBA. Buesa ez da bereziki euskararen kontrako. Hizkuntz eskubi-deak maila pertsonalean ulertzen ditu, estatuaren hizkuntz arauketaren logika jarraitzen du eta *tolerantzia* du balore. Eskolaren gainen *erentsamold* eta jokamoldo argia du. Sistema ekonomiko-politiko honetan sinisten du eta hor eskolak bere funtzioa dauka. Ikastolen errealtatea, berretzat, frankismo garaian euskaldun-goaren ekimenak sortutako eredu bitxi bat da. Une honetan ez da eskeman oso ondo sartzen. Gaur egun ez da komeni antolaketak propioa duten erakundeak egotea. Ez da normala, ez da europea. Bere ustez gizartea instituzioen bidez hezurramitatu behar da, horrela herri normalagoa izango gara. Ikastolak eskeman integratzea apustu handia da herri hau normaltze bidean joateko.

Gainera *gizartearen zati handi batek* praktikan Buesaren hizkuntz filosofiarekin funtzionatzen du. Ikastolen gainen ere, jeltzaleatik hasi, abertzaleetatik segi eta txinostaraino, asko ikastolen altematibotasuna lurperatuko prest daude. Orduan zergatik da Buesa mamioa? Buesa koherentea da. Buesa ondo ari da. Eta, aitor dezagun, jokaldi ona egin du. Buesa kontrario politiko ona da, bestela pensatzen duguontzat. Nik besteci nahi diet puntuta jarri. Eskeman sartzea onartu duten ezker altematibo ustekoer. Historia personal, fobia eta ideia fosil guztien gainetik, erreflexio ideologikora deitzen diet. Ideologikoki berri jantzi beharra daukagu. Buesak ez, Buesa jantzita dago, Txaketa, eta azpian bakeroak. Oi, bakeroak.


LAVANGUARDIA

Perez lehendakariaren amaiera

Carlos Andres Perezen bizitza politikoa amaitu den era ez da albiste ona Iberamerikako laterrien artean tradizio demokratiko handienetakoa den Venezuelarentzat. Lehendakariak Venezuelak une zailak jasan beharko dituela ohartarazi du. Ziur aski hala izango da, eta ez prozesatua bera izateagatik, laterria nozitzen ari den politika, gizarte eta ekonomiko egoera larriagatik baizik. Egoera horrek venezuelar demokratikaren laguntza behar du eta lehendakaria bera ere zeregina horri lotu omen zaio bere berrogeita hamar urteko karrera politikoa egindako azken ekintzaren bidez: justiziaren lana ez oztapatzeko erabakia, Brasilen Collor de Mello lehendakariaren gertatu zenaren kontrara, inolako premiari gabe tragedia gehiago ez lutzateko.

EDITORIALA

HEMEROTEKA



GALLEGU Y REY / DIARIO 16

egin

Programatik kanpo

Bere ideiak defenditzeagatik kartzelan zegoen eskual hiriar baten heriotzari daukan garrantzia erabat kentzen zaionean, PNVren moduko alderdi politikoei presoen sakabanaketa normalizat hartzen dutenean, edota PSOEren Gobernuak presoekiko erabiltzen dituen metodoak, ongi neurituriko epelkeriaz zalantzan jartzen direnean EA eta EUEK egiten duten bezalaxe, edota IUK

bezala taktika hori erabat apoizatzen denean, bere ideologiarengatik kartzelaratua dagoen kolektibo horren garrantzi bateratua hauteskunde kontraprograma bilakutzen da, hautagai guztiek beren mitin eta festetan defenditzen dutela dioten demokraziaren neurri berean. Soil soilik, Estatu espainiar lektoral honetan preso politikoei dauka gogorazten zaie guztia.

Baina zerbaite gehiago ere gogorazten dute. Beren zeldetan egotearen arrazoak ere gogorazten dituzte, zainak gaur justizia, demokrazia eta askatasuna bezalako hitzak oihukatzen di-

tuzten alderdi guztien programei gehi dakizkieken. Ondoko hau ere gogorazten dute, hots, askatasunik gabe baldin badaude, lehenbailehen eta koldarkeria adierazten duten epaiek gaitz gabe Euskal Herriaren subiranotasuna lortzeagatik daudela. autodeterminazio eskubidearen bidez nortasun nazionala onartzeagatik.

Eta azkenik ondoko hau ere gogorazten dute, hau da, berriek direla Estatu espainiarrek herri honen bizirapenari deklaratuako gerraren biktimari argienak.

EDITORIALA

LUZENDARIARI

Porroen arrisku faltsua

Porroak erretzearen aurka agertu berri den telebistako antunzioan injektatzen diren zurrak salatu nahi nituzke. Ditxosozko antunzioan porro bati xiringa orratza jarzen diote, heroina eta porro parekatu nahian. Horrelako astakeriak! Bi droga horiek duten parekotasun bakarra biak ilegalak izatea da, neri behintzat ez zait besterik bururaten.

Horretaz gain, bi datu edo estadistika nahasgarri aipatzen dituzte, lehenengoko porro erretzearekin lauk bat (% 25) heroinara pasatzen dela dio. Hori egia balitz gaur egungo gazteen artean bostetik bat (% 20) heroinomanoa izango litzateke (nere ezagunen artean behintzat hala beharko luke), eta ez pentsa hau esatean astakeriarik esaten ari naizenik, zoaz edozein gazterengana eta galde izeazioz bere ezagunen artean zenbat diren porrorik erretzen ez dutenak, zauden ziur, gutxienez, bostetik lauk erretzen dutela edo, ohitura eduki gabe bada ere, antunzioko hiru porro txorok baino gehiago erre izan dutela. Antunzioaren arauera lau horietatik bat heroinomanoa da, beraz, bost gaztetatik bat (% 20) heroinomanoa izango litzateke. Hau, noski, ez da egia!

Antunzioko bigarren datu estadistikoak heroina hartzen dutenen artean hamarretik zortzik (% 20) aurretik porroak erre izan zituztela dio. Hori nik beste datu batzuk gehituko nizkioke, heroinomanoen artean hamarretik hamarrek (% 100) aurretik alkohola edan izan du, hamarretik hamarrek (% 100) babarrunak jan izan ditu, hamarretik hamarrek (% 100) amasa hartzen du... Datu guzti hauek ez dut uste komentario gehiago merezi dutenik.

Antunzio honen bultzatzaileei gauzak ez nahasteko eta ilegala den gutzia zaku berean ez sartzeko eskatuko nieke. Gaur egun porroak erretzea ilegala bada ere legala izango den eua laister iritsiko bait da (belaunaldi arazo txiki bat besterik ez da).

J. MAKAZAGA
Zarautz (Gipuzkoa)

Zer gertatzen da Unibertsitatean

Berriz ere Unibertsitatea, bai. Bada denbo-

raldiu gatazka konpondu ezinik ibili direla; azkenik Bitartekari bat, Errektorea eta Irakasle kanporatuen ordezkariak, elkartzetaren bidea harturik akordio bateratua helitzea lortu dute. Aurretik nire abegi ona guztiet, zeren eta Unibertsitateak irabazi baitu gutxi honenkin, asinaturua gogorra gaitunditu du eta.

Baina Unibertsitateko Gobernu Juntako kide batzu (17 akordioaren kontra eta 15 akordioaren alde) akordio horren kontra azaldu dira eta ez dute onartu, zertan ari dira Juntakide hoiak? Errektorea eta lortutako akordioaren kontra, ala beste zerbaite dago?

Badirudi akordioaren kontrako botoa eman dutenak CCOO sindikatuaren kideak direla gienbat, hori horrela bada, nola uker daiteke langileriaren aldeko sindikatu baten honelako jarrera?

Ulertezina gertatzen zaidenez, ondoko hau eskatuko nieke pertsona horiei:

Elkarrizketa eta akordioaren bidea gatazka konpontzeko bide zuzena da, aldez inposaketaren bidea gatazka sortzeko eta areagotzeko bide egokiena.

JOSEBA BASTERRA ARZA

Bilbo

GAI JARRITA



Ibilaldia

Hitzak ugari, ekintza gutxi, eguneroko ogia, esaldi hori dela ta ez dela bada hainbat komeria. Beraz guk hitzen tokian jarri nahi genduke izerdia, izan dezagun eguneroko lanerako ausardia, jai baterako aitzaki huts bat ez dedin Ibilaldia.

OIHANE ENBEITA

Egunkaria

Batzorde Parekidea: 72564 E / Lege Gordailua: SS 800/90



OJDN IKUSKATZEA BIDERATUA

Administrazio Kontsoluko Lehendakaria: MARTIN UGALDE

Kontseilu Editorialeko Zuzendaria: JOAN MARI TORREALDAI

Gerentes: FERMIN LAZKANO

Zuzendaria: IRAKI URUA

Zuzendariorde: LUZIAN ETXEZAHARRETA

Zuzendari Komertziala: JUAN INAZO HARTSUGA

Sustapena: NEREA AZURMENDI

Publizitatea: MARI JOSE SARASA

HELBIDEAK

Erredakzio eta Tallerra: ANTZA S.A. Industrialdea 01-02

Pabiloko / 20160 Lasarte-Oria / ☎ 37 15 45 / Faxa: 36 54 93

Egaitza soziala, Publizitatea eta Administrazioa: Antso

Jakintza, 16-1. / 20010 Donostia / ☎ 46 90 22 / Faxa: 45 59 57

Araba: San Antonio, 20-1. Lezker. / 01005 Gasteiz / ☎ 23 38 72 / Faxa: 23 38 73

Nafarroa: Iratxe Monastegia, 45-13. esk. / (Irritzidorea) / 31011 Iruña / ☎ 17 80 7879 / Faxa: 17 80 77

Bizkaja: Barroeta Aldamar, 2-1. eskuma. / 48002 Bilbo / ☎ 423 90 62 / Faxa: 423 94 60

Lapurd / Nafarroa Beherea / Zuberoa: 503 Posta kutxatila, / 64105 Baiona / ☎ 59 59 35 75 / Faxa: 59 25 75 11